

• • • • • Arabako Biltzar Nagusiak

*Iraunkortasuna eta aldaketak
XIX. mendean*

José M^a Ortiz de Orruño
José María Portillo



IRAUNKORTASUNA ETA ALDAKETAK XIX. MENDEAN

José María Ortiz de Orruño eta José María Portillo

FORU-ERREGIMENAREN GARRANTZIA ETA ESANAHIA

«Foruen» analisiaren konplexutasuna, Foruek dituen adiera anitzetatik dator. Komunitateen arteko harremanen oinarrizko arau erregulatzailerak izanik, Foru Erregimena Koroaren zerbitzuan dagoen lurralde-administrazioaren mekanismo informal bezala ere uler daiteke, oligarkia autoktonoei emanda badago ere; eta, haatik, oligarkien tresna bat da ere, haien menperatzearen oinarria ezartzen duena. Ikuspegi soziologikotik foru-ordenamendua tradiziozko gizartea egonkortzeko tresna egokia zen, zeinekin gizartea identifikatzen zen eta horren erreferentzia ere bazen. Baina politika ikuspegi hertsia batetik ezinbestekoa zen atzerriarekiko harremanak bideratzeko nahiz barruko gatazkak erabakitzeko. Alde batetik erregimen bereziak Probintziaren aitortzea suposatzen zuen, hau da, bitartekoa zen arabarren eta erregearen artean; eta, aldi berean, boterearen jardura ere arautzen zuen, probintziako gobernura jotzeko ibilbideak eta kargu publikoak betetzeko beharrezkoak ziren baldintzak ezartzen baitzituen.

Aurreko orrialdeetan, Arabako Ermandadetik abiatutik, Probintziaren sorrera deskribatu izan da. Ermandadea, XV. mende erdian sortua, «*en aumento de la justicia contra los malhechores*» («gaizkileen aurka justizia gehitzeko»), kontzejuen elkarte boteretsua zen, eta Enrique IV.ak ahalmen bereziak eman zizkion alderdien desordenekin amaitzeko. Bere agerpena Ermandade Sainduaren barruan gertatzen da eta horrexegatik ezin dugu salbuespenezkotzat jo. Baina Arabako Ermandadeak hasierako jurisdikziozko esleipenei administraziozko beste batzuk eranstean askoz erakunde-sare konplexuago sortu zuen bitartean, Gaztelakoak desegin ziren ordena berreskuratu bezain laster. Izan ere, Monarkiaren eremu politikoa era eraginkor eta uniforme batera antolatzeko errege-burokraziaren garapena oso urria

izanez gero, Arabako Ermandadea, lurraldearen administrazioa eta bertakoen ordezkariak erregearen aurrean eskuratuz joan zen gero eta gehiago. Adibidez, Ermandadearen eta Koroaren helburuak berberak ziren –lurraldea baketzea, botere feudala menperatzea, merkataritza berraktibatzea, etab. Hortaz gainera, Gaztelako giro kultural eta ekonomikoan gero eta gehiago sartuta zeuden arabarren leialtasun garbiak, botere probintziala bateratzeko bidea erraztu zuen.

Lurraldearen benetako eraketa korporatiboa izanik, Probintziaren nortasun juridikoaren finkatzea, beraz, bilakabide historiko baten ondorioa izan zen, XVIII. mendean burutu zena. Probintziaren Gorputza Unibertsalaren definizioa –hau da, funtsezko alderdi ezberdinen arauketa, antolaketa eta hierarkizazioa: Diputazioa, Batzar nagusia eta berezia, ermandadearen prokuradoreak, etab.–, epe nahiko laburrean lortu izan zen bitartean, bere jardueraren eremua mugatzea, aldiz, askoz neketsuagoa izan zen. Arabako Ermandadearen jurisdikziozko esleipenak 1463ko Koadernoan nahiko zehazki agertzen badira ere, kontutan hartu behar da administraziozko esleipen hutsak zirenak, aldiz, aski difuminaturik agertzen zirela, elkartutako kontzejuen artean arbitro bidezko gaitasun hutsari mugaturik. Probintziak, noski, ez zuen aginpiderik udal–esparruaren gainean, udalbatzaren gobernamentua Gaztelako Kontseiluak ontzat eman zituen kontzejuen ordenantzen menpean baitzegoen; eta, haatik, Probintziak ezin ziren eskatu inolako tributurik, hau erregearen eskubide esklusiboa baitzen, auzotarren ezinbesteko banaketan gainean.

Probintziak hasieran zuen jokatzeko gaitasuna, alde batetik, errege–burokraziak mugatu zuen nahitaz, burokrazia honek botere osoaren jabe izateko joera baitzuen gero eta gehiago; eta bestetik, udal–erakundeek ere mugatu zuten, autonomia lokalaren defendatzaile amorratuak baitziren. Baina muga bikoitz hori bigundu egin zen erregeak probintziako agintarien leialtasunaz, bakea gordetzeko trebetasunaz eta batez ere Koroaren aldeko baliabideak, gizonezkoak nahiz materialak, lortzeko erraztasunaz konturatu zirenean. Agintari hauen geroko gorabeherak errege–kontseiluekiko Probintziaren nortasuna eta haren esleipenak mugatzeko antzinako aginte–maila

zabaldu zuen apurka–apurka. Eta ez hori bakarrik, orain arte heldu zaigun ezberdintasunaren kontzientzia sakona ere sortarazi zuen.

Arabarren harreman administratibo, fiskal, militar eta ekonomikoak Koroarekiko, besteenak ez bezala, erregimen pribatiboa eta berezia sortarazi zuen Gaztelako beste lurralde guztiekin konparatuz. «Eredu probintzial» honen ezaugarri nagusia bere nolabaiteko autonomia funtzionala zen, «diputatu nagusiarengan» gauzatua; kargu honek, gainera, «Errege–Komisario» eta «landa–buruzagi» karguak ere barnebiltzen zuen. Izendapena Probintziako Batzar nagusiaren esku zegoen, erregearen inolako eskuartzerik gabe. Baina ereduaren berezitasuna ez zen horretan amaitzen. Bake garaian arabarrek ez zuten beharrezko soldaduskarik egin behar, eta Probintziak lurraldearen osotasuna gorde behar zenez, inbasioa gertatzekotan, armak hartzeko gai ziren gizon guztiak bere kabuz mobilizatu eta haien armaz hornitu behar ziren. Gainera arabarrak ez zeuden Gaztelako tributuen menpe; errege–altxorra mantentzen zen dohaintza, aldizkako zerbitzu eta borondatezkoa zerbitzuaren bidez. Erregimen bereziaren izate berekoarekin batera, aduanak lurraldearen barne–portuetan ezartzeak sarbide erraza eta merkea ziurtatzen zuen nazioarteko salgaiantzat, merkataritza librearen bidez. Zenbait aldakirekin, berezitasun berak zituzten, gutxi gora behera, Bizkaiak eta Gipuzkoak.

Probintziaren finkatze–prozesuak bultzada handia izan zuen XVIII. mende hasieran. Aragoiko erresuma zaharren berezitasunekin gertatu ez zen bezala, Felipe V.ak ez baitzituen Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko foruak abolitu. Are gehiago, 1727ko hitzartuen bitartez, aitortu zuen euskal probintziaren berezitasuna, eta handik aurrera «salbuetsiak» aitortu zituen. Salbuespen hori hasieran fiskala eta militarra bazen ere, agintariak barne–bakea gordetzeko eskumena eskuratu zutenean, arlo juridiko eta administratibora zabaldu zen. «*Obedézcase pero no se cumpla*» («Obeditu baina bete ez beza») formula ezagunaren bidez, foru–baimenak, «*libertades, fueros, buenos usos y costumbres*» («askatasun, foru, erabilera eta ohitura onak»)–en kontrakoak ziren xedapen guztien aurka egitea uzten ziren. Hau hala bada ere, probintziaren ahalmen hori onartzeak



ez zekarren gutxiespenik erregearen subiranotasunarekiko, zeren erregeak aldarazteko eta kontrolatzeko beharrezko tresnak gordetzen baitzituen. Subiranoak, udal-esparruaren gainbegiraketa edo justiziaren goreneko instantzia ezik ondoko ahalmen hauek ere gorde zituen: Batzar Nagusiaren erabakiak baliogabetzea, foru-baimena aldi baterako geldiaraztea eta korrejidoreak bidaltzea –zeinen botereen aurrean probintziako agintari guztiak urruntzen baitziren.

Probintziaren Batzar Nagusia lehentasuna zuen Arabako erakundearen artean. Lurraldearen jatorrizko ordezkariak zuten eta esaterako, foru-kargu guztiak gelditzen ziren biltzen zenean; asanblada handi honek probintziako funtzionario guztiak izendatzeko nahiz gestio administratiboa gidatzeko ahalmena zuen. Koadernoaren IX. eta LIX. Ordenantzak bi bilera arrunta ezartzen zituen. Lehenengoa, Done Martin aldirian, Gasteizen egiten zen, eta hamabost egun irautean zuen; Katalina Saindakoa, berriz, zortzi egunetako iraupena zuen eta Arabako beste edozein herritan egiten zen. Probintziak eskatuta, 1630eko apirilaren 8ko Errege-Zedulak erdira mugatu zuen bion iraupena, eta egutegi finkoa ezarri zuen. Hurrengoetan, Done Martineko batzarra azaroaren 18tik 25 arte egingo zen, eta Katalina Saindakoa maiatzaren 4tik 8ra. Ondoren, 1783an, bi deialdiak bat bakarrean bildu izan ziren, uztailearen 4tik 11ra arte, baina aldaketa

hau ez zuten aurrera eraman, eta mendea bukatu baino lehenago 1630eko Errege-Zelula indarra osoan sartu zen.

Batzar nagusiaren oligarki osaketa garbiaz zalantza gutxi dago. Koadernoaren XI. Ordenantza erabatekoa da honi buruz, eta ermandadeko prokuradoreak honelakoak izan behar ziren: *«hombres de buenas famas, pertenescientes, ricos e abonados, en quantía de quarenta mil maravedís»* («fama oneko gizonak, jabeak, aberatsak eta berrogei mila marau kantitatean abonatuak»).

Lurraldeko sistema korporatiboa lehentasun osoa zuenez gero, Asanbladaren gizarte-ordezkaritza eskasa gero eta ahulagoa suertatu zen: ermandade bakoitzak ordezkariak bera zuten, ezberdintasun demografikoak eta ekonomikoak kontutan hartu gabe. Beste era batera esanda, boto bana zuten zirkunskripzio guztiek, Probintziaren borondatea batzar nagusian bildurik zeuden ermandadeetako ordezkarien borondateen batuketan zetzan. Zirkunskripzio batzuek bi prokuradore bidaltzen bazituzten ere, haien botoa baliogabe geratzen zen desadostasunak gertatuz gero. Batzarraren deliberazioak isilpekoak ziren nahiz eta botazioak ahoz eta ahaldunek ordezkarietako ermandadearen izenean botoa eman.

Asanbladan handikien eraginari indarra kentzeko xedez, gehiengo osatzen baitzuten, Gasteizko handikiek pribilegio sorta zuten: Koroak aldi batean edo bestean emanak, hauen indarra gehitu zuten hein handi batean Probintziako gobernuan. Ikusi dugun moduan, Gasteizen egiten ziren batzar bereziak eta arruntak, Done Martinekoak, hots, luzeanak eta garrantzitsuenak, haietan foru-kargu guztiak berriztatzen baitziren. Gainera, 1498tik Gasteizek monopolioa lortu zuen bai Hiri eta hiribilduen idazkaritzan eta Batzar Bereziaren lehen komisariotza. Horrela bada, Hiriari idazkaritza bi horietatik bat zegozkion, eta 1702. urte arte ez zuten onartu azken kargu hau Agurainekin banatzea; banaketa hau, bestalde, ez zen izan proportzionala, gasteiztarren guztiz aldekoa baizik. Halaber, Gasteizko handikien pribilegiarik garrantzitsuenak, 1535etik aurrera eta Carlos V.ak baieztatu zuena, honako hau zen: diputatu nagusia hautatzeko botoen erdia zuten; kargu horrek, gainera, hiriko auzotar batentzat izan behar zuen.

Beraz, probintziaren gobernu landa-handiki koalizio baten eta Gasteizko handikien eskuan zegoen. Ordezkaritza oso mugatua bazen ere –eta hau ez da harritzekoa, landa-gizartea oso estratifikatua, hierarkizatua eta bertikala baitzen–, herri-legitimitate handikoa zen. Eta hau ondoko bi arrazoiengatik. Lehenengoz, komunitateak probintziako oligarkiaren lehentasun morala aitortu eta haren agintaritza ia-ia begirunez onartzen zuelako; bigarrenez, gobernu-sistema foru-erregimenaren zutabe nagusia zelako, pribilegio komertzialak, fiskalak eta militarrek bermatzen baitzituen eta hauek ere menpeko klase sozialen alde jokatzen zuen era batera edo bestera.

PROBINTZIAREN ELKARKIDETASUNAREN HAUSTEA XIX. MENDE HASIERAN

Erakunde eta gizartearen arteko harreman mota hauek, ekonomia-aterapen eta monarkia absolutuaren eraginez, desorekatzen hasi ziren mende hasieran. XVIII. mendearen azken herenean izandako inflazioaren, merkataritzak gero eta zailtasun handiago izatearen, burdinolen gainbeheren eta elkarren segidan izandako uzta txarren

ondorioz, ahuldu egin ziren elite probintzialaren azpitaldeek –hau da, merkatariek eta ondasundunek– aurretik ezarritako oinarri materialak. Gainera, Frantzia iraultzailearen aurkako gerrek ekarritako presio fiskalaren gehitzeak tentsio-elementu berri bat sortarazi zuen. Ordura arte izandako homogeneotasuna desegiten hasi zen; batzuek edo besteek krisialdia gainditzeko aurkezten zituzten egitasmo alternatiboak edo, beste era esanda, kontrakoak agertu ziren heinean, sendatuz joan zen haustura. Haren ondarearekiko loturari esker kapital komertzialaren asezeintasunaren aurka ongi babesturik, tradiziozko egitura ekonomikoaren edozein aldaketa gaitzetsi zuen landa-aristokraziak. Hiriko burgesia, aldiz, pobretasunerako prozesua gelditu lezakeelakoan zegoen, baliabide produktiboak eta, noski, lur-jabetasuna askatuz eta aduanak kostaldera aldatzearekin batera estatuko merkatuaren integrazioa eginez. Era honetan, hasieran politika ekonomikoari buruzko ez adostasuna bezala agertu zena, ideologia-aurkaketa bilakatu zen.

Azpimarratu behar da, hala ere, hiriko burgesiak ez zuela eskatzen foru-erregimena lurrera botatzea, praktika jakin batzuen erreforma baizik. Baina landa-handikiek burugogorkeria azaldu zutenean, arrera erradikalerantz jo zuten. Gero, haustura hau orokorragoa zen beste baten azpian ezkatatu zen, Antzinako Erregimenaren babesean hain zuzen ere, eta orduan gatazkak leku-eremua bera gainezkatu zuen. Hortik aurrera, merkataritza eta ondasundunen arteko alderdiak, liberalak eta absolutistak direlakoan arteko dialektikan barnebildurik geratu ziren. Cadiz-eko konstituzioak, izatez foru-erregimenekin bateraezina zenez, Frantziako Iraultzaren printzipioen interpretazio indibidualista batekin bat zetorren Espainiako gizartearen berregituraketa defendatzen zuen. Hiriko handikiek bazeuzkan pisu handiko arrazoiak liberalak izateko. Erregimen berria haien ekonomia-helburuen aldekoa zen hein handi batean eta, aldi berean, landa-handikiekiko mendekotasunetik aske uzten zien. Alderantziz, landa-aristokraziak bazekien tradiziozko ordenamendua gordetzea bide bakarra zela beren menperapena sozial eta politikoa iraunarazteko.

Barne-gatazka honen lehen gertaera, ordura arte kontutan hartzeko eskumen eta autonomia maila eskuratu izan zuten foru-erakundeen

kontrolari buruzkoa izan zen. Har dezagun, adibide gisa, Ogasun probintzialaren bilakaera. XVII. mende erdira arte, gastu arruntei eta erregeen eskaerei erantzuteko «*derramas*» edo zerga berezietz baliatu ziren, ermandade-orri banaka. Baina sistema hau gutxiegiakoa izan zen dohaintzak, mendearen bigarren erdian, gero eta ugariagoak izan eta elkarren segidan agertu zirenean. Koroak, ezohizko gastuen bat-bateko gehitze honi aurre egiteko, kontsumoaren gaineko zergak epeka ordaintzeko baimena eman zion Arabako probintziari. Horrela bada, probintziako Ogasunak, zegokion harpidetza eginez, azkar bil zezaken eskatutako errege-saria: emandako arielen irabazia bermatu egiten zuen agindutako eskatutako kapitalak itzultzea eta eskainitako interesen ordainketa. Zerga-bilketa eta administraziozko lanean sartzean, foru aldundiak eskumen asko lortu zituen botere fiskalaren eremuan. Probintziako zorrak, zeinen agerpena estatuko Haziendaren ahulduraren ondorioa baitzen, gero eta handiagoak izan ziren, zergen dinamika bera baldintzatu arte. Hasieran emakidak finkoak ziren; gero, jatorrizko tarifak gehitu behar izan zituzten. Eta XVIII. mende hasieratik aldundiak, hartzekodunekin jasotako konpromisoei aurre egiteko ezaren eta errege-zerbitzuaren alde egindako diru-eraketa handien babespean, berezko zergak ezarri zituen, erregearen baimena eskatu gabe ere.

Landa-handikien eta hiriko handikien arteko istiluak gora joan ziren 1804ko urrian, Gaztelako Kontseiluaren epaia ezagutzean, Gasteiz eta Probintziak diputatu nagusiaren hautaketaz hamar urte aurretik zeukaten auziari buruzko epaia alegia. 1535ean Carlos V.ak emandako hornidura espresuki deuseztatzean, epaitza landa-handikien aldekoa zen. Urte bereko azaroaren batzarrean inbokatu zuten Gasteizeko ahaldunak egindako bi izendapen aurkatzeko: bat, Batzar bereziaren lehen komisariarena; bi, hiri eta hiribilduen idazkariarena. Gaztelako Kontseilua arrazoia eman zien berriro probintziaren ustezko pribilegioa baieztatzean, hau da, foru-karguen horniketa «entre todas sus cuadrillas y hermandades sin distinción» («koadrila eta ermandade guztien artean, bereizketarik gabe») egin behar zela esatean. Aldeak laster azaldu ziren berriro, zenbait hilabete geroxeago, Godoyk eskakizun bat egin zuenean Ingalaterraren aurkako gerra finantzatzeko. Landa-

handikiek menperatzen zuten Batzar Nagusia, gatazkan erabakitzen ziren arazoak ekonomia-arazo huts-hutsak zirela ikusiz, 1805ean hauxe dekretatu zuen dohainezko emarien leporatzeari buruz nori leporatu behar zaizkien ezarriz: «*sobre los comerciantes, esto es, los que se emplean y negocian comprando, vendiendo o permutando géneros comerciales; y sobre los capitalistas, esto es, los que teniendo caudales sobrantes los destinan al comercio percibiendo sus intereses mercantiles, sin que la Provincia por concepto de tal haya de mezclarse en la suscripción*»¹.

Zaila izango da hiriko burgesiaren ezaugarrien azalpen egokiagoa aurkitzea. Ministroaren geroko esku-hartzea, dohainezko emaria ordaintzea arabar guztiei zegokiela esanez, ez zuen arindu probintziako oligarkiaren bi alderdien arteko lehia. Are gehiago, aurkaketa gogorragoa izan zen 1806ko azaroan, diputatu nagusiaren agintaldia bukatu zenean, gasteiztarrek botoen erdia edukitzeko eskubidea ezin izan baitzuten erabili. Protesta eta aurkako protesta asko izan ondoren, Batzar Nagusiak arautegi berria onetsi zuen probintziako magistratu nagusia hautatzeko; arautegi honen berri garrantzitsua Koadrilaka bildutako ermandade guztien arteko sei hautesle zozketaz izendatzean zetzan. Era honetan, hiriko handikiek antzinako eskubideak galdu zituzten eta haien eragina berezko ermandadearen lurralde-ordezkaritzara mugatu zen.

Landa-Handikiek ustezko foru-ortodoxiari jo zioten burua zuritzeko. Hala ere, ohar bat egin behar da puntu honi dagokionez. Delako foru-ortodoxia hau ez zen zentzubakarreko kontzeptua ezta aldaezina ere: historikoki, berezko interesozehatzaketa espezifikoak errebindikatzeko «pureza del fuero» edo «foruaren garbitasuna» aipatu izan zuten. Bestalde, landa-aristokrazia ere elkartu egin zen argi eta garbi estatu lauaren auka, botere guztiaz jabetzeko asmoz. Handikien batzar nagusiaren eraso bi alditan gertatu zen. Lehenengoan, ermandadearen ahaldundunak berrautatzeko laguntza eman zuten, pertsona konketu eta kargu batzuk elkartzeko joera adieraziz; gero, noblezia-zurtagiria azaltzen ez zuten guztiei bertaratzea debekatu zieten.

Prokuradoreen berrautaketa egitea Koadernoaren XLVII. ordenantzak oharmandako hutsuneak ez betetzea praktika arrunta zen; hain arrunta, non Probintziak ohitura hau berresteko eskatu zion Carlos III. ari. Baina Gaztelako Kontseilua zuhur agertu zen. 1779ko otsailaren 13ko Errege-Hornidura bidez agintaldiak bi urtetako iraupena izango zuela aitortu, eta Batzar Nagusiaren ahaldundunen erdia urtero berritzeko agindu zuen. Hala ere, diktamen hau ere ez zen bete izan, eta Aguraingo ahaldunak honakoa salatu zuen 1799an: «*De muchos años a esta parte, asisten a las Juntas Generales en calidad de principales, o como acompañantes de los procuradores, varios sujetos que han tomado como por oficio aquellos empleos por ser escribanos o caciques de las hermandades que otorgan a su favor los poderes: como son casi perpetuos constituyentes se alzan con un valimiento tan extraordinario que, entre tres o cuatro de aquella especie, está comúnmente refundida toda la autoridad de la Provincia*»².

Hala eta guztiz ere protestek ez zuten ezertarako balio izan: Batzar Nagusiak ermandadeen esku utzi zituen ahaldundunen hautaketa eta berrautaketa. Aldi berean, Probintziak eskatutako 1800eko urriaren 27ko beste Errege-Probisioak, plebeioak Batzar Nagusitik baztertzear gain, udalbatzen kargu nagusien monopolioa handikiei ematen zien. Lekuko gobernu-organoen oligarkia indartu egin zen zenbait udaletxetan, auzotarren ordezkariak murriztu eta hautatuaren ordezkariak irekiak jarri, Nafarroan bezala. Araban, hala ere, estatuen bereizketak erakundeen aitortpena zuen. Ondorioz, aldaketa hau Arabako tradizioaren aurkakoa zelarik, botere-organoen manipulazio hau landa-handikien defentsazko arrera bezala ulertu behar da, Herrian bizitzen ari zen desberdintzapen sozialaren prozesu bizkorren aurrean. Erakundeen inolako oposizioirik izan gabe, nobleek, Frantzia Iraultzailearen aurkako gerragatik gero eta handiagoak zirenez gero eta une hartako larritasunak estatu lauari leporatzeko asmoz, pribilegioak eta estamentuen salbuespenak plazaratu zituzten (1793-5 eta 1808-13).

Gehiegikeriak ugartu ziren, batez ere ostatu eta baliabideko zerbitzuekin lotutakoak, Probintziak estatu osoaren pribatiboak

zirela aitortu baitzuen. Bidegabekeriak hain handiak izan ziren, non «*nekazari zintzoak*» erreal milioi erdi bat eskaini zioten Fernando VII.ari noblezte kolektiboaren truke. 1814ko abenduaren 31ko zioen adierazpenean, jasotako tratu itsusiaz keaxatzen ziren mila zazpiehun sinatzaileak, eta «*Gineako beltzen egoerarekin*» konparatzen zuten haren egoera. Gaztelako Kontseiluaren eskariz Arabako aldundiak bidali zuen eskakizunaren aurkako txostena ezagutzear haserretu egin zen. Orduan, nekazari zintzoek ondoko asmo hau adierazi zuten: «*desunimos y separarnos absolutamente de los preceptos de Provincia en que no tenemos representación ya que nos sujetan contra todo derecho legal solicitando nuevas leyes sin Fuero alavés por librarnos de una vez de tantos reyzelos cuantos son los nobles, que nos hacen perder las almas y consumir las haciendas*»³

Baina Gasteizeko handikien eta nekazarien sumina landa-handikiko ez zen nahikoa haien arteko aliantza egiteko: bakoitzaren interesak guztiz urrunkorrak azaldu ziren hiru urteko liberalean (1820-1823). Erregimen-aldaketak foru-erakundeen desegitea ekarri zuen, noski; baina aduanen aldaketa eta espainiar guztiek zeuzkaten betebeharrak fiskalak eta militarrek ere. Gainera hiriko kapitalak, errentamendu-askatasuna edo herri-ondasunen pribatizazio bezalako xedapen batzuen babespean, nekazaritza-eremuan sartzeak tradiziozko bizimoduak erroetatik ateratzeko lagundu zuen. Gauzak horrela, nekazarien atsekabeak altxamendu armatuaren forma hartu zuen: lagun-talde ugari kaleratu ziren herri osoan, absolutismoaren itzulera eskatuz. Agurainen gertatu zen bezala 1821eko Ostegun Santuan. Egun horretan ia mila gazte hiribildua hartu zuten eta udal-agintariak mederatu zituzten «*gora erlijioa, gora erregea eta Konstituzioa hil*» oihukatuz. Angulemako mandoari Frantziatik bidalitako kanpo-laguntzarik gabe, ezin izango zuten konstituzio erregimenarekin amaitu. Baina behin garaitu ondoren, ez zeuden berriz ezustekorik hartzeko prest.

Euskal Herrian 1823tik aurrera, konstituziozko eskarmentuaren oroitze penagarriak, nekazarien eta berriro probintziako boterearen jabe ziren landa-handikien arteko berradiskidetzea erraztu zuen.

Berradiskidetze hori foru diskurtso batean oinarritzen zen, landa-handikiei erakundeetan nagusituko zirela bermatzeaz gain, foruek handikien menperapena ziurtatzen zuten, azpiko klaseen zerga-ordaintze gutxiago, soldadutza-exentzioa eta inportatutako kontsumo-ondasunen lorpen merkea bermatzen zituzten. Araban Valentín de Verástegui gidatzen zuen nekazarien eta landa-handikien arteko aliantza. Gasteiz lurralde-ordezkaritza hutsera mugatu eta erakunde-bazterketak ere eragina izan zuen landa-burgesi eraginkorren, zeinen barruan herri-ondasunen erosle, ziza eta probintziako zergen errentero, udal-arielen errematatzaile, tabernari eta ostalariak sartu behar ditugu. Gizarte-bereizkeriei xede politikoaz markaturiko beste batzuk ere gaineratu zitzaizkien. Liberalak edo liberalizat hartuak zirenak kargu publikoak betetzeko ezgaitu zituzten. Udalbatza nahiz probintzia mailan, «*konstituziozko edozein nahasketarik garbi*» egon behar ziren denak. Landa-aristokraziak txorimalo liberala eragin zuen nekazariak erakartzeko eta, apaizen propaganda erasokorraz lagundurik, gorputz paramilitar baten barruan sartu zituen. Fernando VII.ak milizia liberalaren aldaki ultra bezala sortutako *errege-boluntarioen* bariante bat, *herriko armatuek*, landa-komunitatearen kohesioa buruzagi tradizionalen inguruan indartu, eta Kapitalista eta liberalen aurkako balore-sistema bat zabaldu zuten. Baina Verásteguiaren eta haren jarraitzaileen absolutismo zaharrak, Koroaren ministro erregezaleenak gustukoak ez zituzten foruen aldeko inplikazioak zituen.

FORUAK: MONARKIA ABSOLUTUTIK KONSTITUZIOZKO ESTATURA

Foru-erregimenak eragozpenik gabe Espainiako monarkiaren antolaketarekin bat egin bazuen ere, Borbonek hasitako ibilbide bateratzaileak urradura batzuk sortu zituen estatuko eta probintziako botereen artean. Iraunkorrena aduanak kostaldera eramatearen aurkako lurralde aforatuen oposaketak sortu zuen. Ekonomia-eremuaren batasuna, merkantilisten iritziz, beharrezko baldintza zen inportazio kontrolaezinarekin bukatzeko eta Espainiako

penintsulako industria berrabiatzeko. Baina lagun arteko akordioa lortzeko ezintasunagatik, Felipe V.aren ondorengoek foru-agintarien borondatea bortxatzea erabaki zuten. Monetaren zirkulazio libreari ezarritako murrizketek, Amerikarekin komertzio zuzena egiteko euskal portuen gaitasungabetzeak eta atzerriartasun eskubideek «arantzel-zedarri» bat eraiki zuten urte gutxitan, eta horrek lurralde foratuen hazkuntza normala eragozten zuen. Laster ekonomia-liskarrari fiskala erantsi zitzaion, probintzia salbuetsiek monarkiaren orotariko gastuei ekarpen gutxi egiteagatik, nahiz eta finantza-krisia Carlos III.ak hasitako atzerriko politika gerrazaletik etorri.

Gerra-ekintza eztabaidatu batek lortu zuen, hain zuzen ere, ordura arte ekonomia-arloan ardaturiko eztabaida ideologia arlora alda zedila. Donostiaren ia erresistentziarik gabeko errenditzeak, 1794ko udan, eta Frantzia errepublikarekin federatzeko geroko saialdiak, foru-erregimenaren sorburu eta izaerari buruzko eztabaida juridiko eta administratibo baten hasiera mugatu zuen. Gobernu zentralaren partez idazten zutenen arabera, foruak erregeek beren kabuz emandako pribilegio multzo bat besterik ez ziren eta, horren ondorioz, kengarriak; foruzaleentzat, berriz, euskal lurraldeek Gaztelan sartzean egindako itunaren formalizazioa ordezkatzen zuten eta, haatik, aldaezinak ziren bi alderdiek aldaketarik onesten ez bazuten. Eztabaida isildu egin zen denboraldi batean, baina Independentzia Gerraren amaieran berpiztu egin zen, Errege-Ogasunaren aurkako gehiegikeriak ikertzeko ministerio-batzordea sortzearekin batera. Azken txostenean, 1819an agertuta, gogor kritikitzen zuen batzordeak euskal probintzien egoera berezia, eta, tesi zentralistekin bat etorriz, administrazio zentralaren esku-hartze zuzenagoa proposatzen zuen iruzurrak mozteko.

Hala ere, 1820ko udan izandako aldaketa politikoak, erregearen erabakia azaltzea galarazi zuen: liberalek Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko erregimen foralak ezabatu zituzten hiritarren berdintasun juridikoaren alde. Hiru urte beranduago, konstituziozko erregimena erori zenean, tradiziozko ordenamendu juridikoa berrezarri zen, foruak eta guzti, ministro erreformistak aurkakoak izan arren. Eskuinaldetik



Metalezko globo horietan Posta bidea egitearen ondorioz suertatuko zorra ordaintzeko ordainketa-aginduak sartzen ziren. XIX. mendeko lehen hamarkada. Arabako Foru Aldundian. Foto Quintas.

«apostolikoek» eta ezkerretatik liberalek estuturik, Fernando VII.ak premiagabeko gatazkak baztertu nahi zituen, eta euskal oligarkiaren laguntza bilatu zuen. Horregatik absolutista ospetsuen kontrolpeko foru aldundiei, boluntario errealdisten probintziako buruzagitza, polizia egin berriaren zuzendaritza eta auzotarrek aurkeztutako hirukote batetik alkateen izendapena egiteko aukera eman zizkien. Landa-handikiek erregearen zelo zapaltzailetik sortutako kontzesio hauek aprobetxatu zituzten probintziaren menperapena ukatzeko era batez zabaltzeko.

Atribuzio berrien ondorioz gastuak gehitu ziren eta Aldundiek, gastu berri hauei aurre egiteko, zerga-eredua egokitu zuten. Kontsumo eta «derramas» edo zerga berezien gaineko ariel zaharrak ermandade-orri banaka gehitzeaz gain, garatu gabeko ondasunen gaineko zergak jarri ziren martxan Araban. Hiriko burgesiak zerga berri hauek liberalen aurka bidegabeko bereizkeriaz hartu eta zergan aurka egin zuten, baina arrakastarik gabe. Gasteiz eta Probintziaren arteko, hau da, hiri-burgesia eta landa-handikien arteko tirabirak gero eta handiagoak ziren; barne-tentsio hauek, ordea, ez zuten galarazi Fernando VII.aren erreinuaren amaieran Aldundiaren eskumenak gehitzea. Honen argibidea foru-magistratuaren eta Probintziako bulegoen egoitza zen jauregi baten eraikuntza dugu, Batzar Nagusiak 1832ko azaroan onetsia.

Izan ere, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako landa-handikiak monarkia absolutuaren krisialdiaz baliatu ziren probintzien autonomia

finkatzeko. Baina erregearen kontseilari batzuk ez zuten begi onez ikusten prozesu hori, dena dela ezin izan zuten saihestu. López Ballesteros Ogasunaren buruk ere ezin izan zuen euskal probintzietan kontribuzio iraunkorrik ezarri, nahiz eta haren iritziz: «*todos los pueblos tienen la obligación de contribuir cada uno según sus leyes y fueros a los gastos de conservación, seguridad e independencia del Estado*»⁴. Foru aldundien erresistentzia gogorra ezinezkoa izango litzateke Ballesteros gorrotatzen zuten gortekoen laguntzarik gabe. Egia izan daiteke Errege-gaiaren aldeko jarrera orokorra ez zatekeela arrazoi bakarra «foruen defentsa» egiteko. Baina probintziako erakundeetatik absolutismo epearen jarrera «orekatzaileak» ezagutzen zutenek, dohaintza ekarpen iraukor bihurtzeko nahia barne, bazeuzkaten pisu handiko arrazoiak Carlos jaunak ordezkatzeko zuten absolutismo setatienaren alde egiteko.

Karlisten derrotak dinastia-arazoa erabakitzeaz gain, erregearen botere absolutuari ere eman zion amaiera, zeinen ezaugarriak ondoko hauek ditugu: politika mailan, erregearen botere absolutua; gizarte mailan, ezberdintasunaren aitorten juridikoa, pribilegioen bidez onartua; eta ekonomia mailan, botere publikoen eskusartzea eta interbentzionismoa. Hala ere, Estatu liberalaren etorriak, liberalen erretorika zentralista eta berdinkidea bazen ere, ez zuen ekarri foruen bat-bateko derogazioa: nahiz eta aldi baterako kentze eta aldaketak izan, aurrera jarraitu zuten, 1876ko uztaila arte. Edozertara, ezinezkoa zen holako indarrean egote iraunkorra gerta dadila aristokrazia lurduaren menpean politikoki nahi sozialki zegoen eta gerra zibiletik sortu zen bloke berri horren konplexutasunik gabe: moderatuak izan ziren, hain zuzen ere, eta ez Cadiz-eko erradikalismoaren oinordekoak, Espainiako Estatu liberalaren eraikuntzaren protagonistak izan zirenak. Doktrina-printzipioak 1837ko konstituzioan, eta batez ere 1845ekoan, biltzen ziren. Honako hauek izan ziren konstituzio-printzipio berriak: Nazio-subiranotasunaren ordezkari «Gortek Erregearekin» banatutako subiranotasuna, eta sufragio unibertsalaren ordezkari zentsuzkoa. Hala ere, hautesleen borondatea faltsutu egiten zen sarritan estatu-organizazioaren maniobren bitartez.

Euskal Herrian Karlistadak indarren korrelazioa aldatu zuen. Gerra zibila amaitzerakoan, Euskal liberalismo kontserbakorrak errebolta kondenatu eta Isabelen gobernuarekiko leiala izaten jarraitu zuen, eta bere eragipen moral guztiaz baliatu zen foru-erregimenaren jarraipena edo, bederen, konstituzioaren barrutiko bere integrazioa berreskatzeko, beharrezkoak ziren aldaketak egin ondoren. Bere ahaleginak fruitu eman zuen epe luzean, estatu-zentralizazioaren helburu nagusia baitzen hiritar guztien berdintasuna lortzea, klase berriaren menperapena ziurtatzea baizik; agintariak, gizarte laguntzarik gabe, probintzietako oligarkien laguntza behar zuten eta haien artean euskal herrikoarena, noski, esandako menperatze hori gauzatzeko. Alderdi moderatuak amore eman zuen azkenean, baina hori kontserbadorismoaren barruan islatu zegoelako gertatu zen, zeren eta foru-erregimenaren oinarria, kontserbadorismoarena bezala, zentsuduna eta oligarkikoa zen. Ez da harritzekoa, beraz, gerra zibilaren ondoren moderantismoa eta foru-zaletasuna bat agertzea, lehena liberalen alderdirik kontserbakorrena eta bigarrena aurrekoaren euskal moldatzea baitziren. Progresisten aurrean, moderatuak eta foruzaleak ideal demokratikoa ukatzen zuten, legitimazioaren iturri bezala. Lehengoak, ibilbide politikoari dagokionez, historiara jotzen zuten Koroaren protagonismoa justifikatzeko; besteak, aldiz, foruen iragan hurbila aintzakotzat hartuz, tradizioa jo zuten, tratu konstituzional berezia eskatzeko.

Horrexegatik onartu zuten moderatuak foruak konstituzioan sartzea, 1839ko urriaren 25eko legearen bidez; eta horrexegatik ere lortu zuten foruzaleen laguntza progresisten ezbaierik gabeko buruzagi eta Isabel II.aren aldirian erregeorde bakarra zen Espartero lurrera botatzeko saioan. Haien erbesteaz ordaindu zuten estatu-kolpe hutseginean parte hartu izanagatik; hauek, foruen galerarekin. Moderatuak, ordea, berehala ordaindu zuten ohore-zorra hau –hots, boterea-berreskuratu zuten bezain laster: 1844ko uztaietan berrezarri zuten foru-erregimena eta, aldi berean, 1873 urteaz geroztik funtzionatzen zuten aldundi probintzial berrien jardute-eremua hauteskunde eta inprenta arazoetara murriztu zuten. Egia da foruzaleek aldaketa partzialak onartu behar izan zituztela: foru-baimena ukatzea, aduanen

lekualdaketa, monarkiaren sistema judizialean sartzea, Guardia Zibilaren hedaketa, etab. Baina hau ezinbestekoa zen, edo bestela foru-erregimena onartezina izan zatekeen moderatuentzat ere. Horren truke, euskal probintziak autonomia funtzional handiagoa lortu eta pribilegio fiskalak eta militarrik gorde zituzten.

Testuinguru honetan, konstituzioa/foruak delako dialektika honek foraltasunaren definizio berria sortarazi zuen; foraltasun hau, foru-agintariak erabiltzen zuten probintzietako «barne gobernu» bezala identifikaturik agertu zen gero eta gehiago kanpokoentzat; eta barrukoentzat, menperapen-egitura lokalen legitimazio bezala ulerturik. Trebetasun handiko joko bikoitza eginez aldundiak, botere zentralaren aurrean alde batetik, autogobernuaren irudipen jatorra eta foru-erregimenaren muina bezala agertzen ziren; eta bestetik, euskal iritzi publikoaren aurrean, foruen defendatzailek amorratuak bezala, botere zentralaren eskusartzeak galarazteko gai izan ziren eta. Tentsioak sortu ziren, noski. Moderatuak beren administrazio eta zerga-eredua inposatu nahi izan zutenean, foruzaleak, trebetasunez, gerta litekeen asaldatze armatuaren arriskua erabili zuten. Botere zentral eta probintzialaren artean izandako borroka ezkatutua foruzaleen guztiz aldekoa izan zen. Foru aldundiek ez zituzten bakarrik beraien kompetentziak ugaltu estatu-organoen kalte –Aldundien, gobernadore zibilen, etab.ekoen kalte, alegia–; administraziozko zentralizazio eta arrazionalizazio bidera ere jo zuten, udalbatzen kontrola eman zien bidera, hain zuten ere.

Euskal aldundiek, bestalde, gobernuaren eskutik lortu zuten garrantzi handiagoa, gobernuak Estatu eta euskal biztanleriaren solaskide bakartzat hartu baitzituen, parlamentu-mandatarien gainean ere, probintziako oligarkien bitarteko hutsak ziren eta. Bestalde, gobernu moderatuak, Gorteen jakin gabe, probidentzia ugari eman zituzten ohizko legeria euskal probintzietan ez aplikatzeko, 39ko legearen II. artikuluan emandako nahi adinako boterearen babespean. Foruzaleak, beraien aldetik eta horren truke, baldintzarik gabeko laguntza eskaini zieten parlamenturako legislatura guztietan eta, batez ere,

liberalismo erradikalaren aurrerapenaren aurkako bastioi sendoena sortarazi zuten Euskal Herrian Isabel II.aren erreinu nahaspilatuan. Eraginkortasunari dagokionez, elkarraditze hau –progresisten ustez etsipen lotsagarria eta konstituzioaren kontrakoa zena–, errentagarria izan zen moderatuentzat. Balio handiko kostu politikoei –sinesterik eza iritzi publikoaren aurrean, gobernuaren indar moralaren galera, etab.ekoei–, Koroaren botere moderatzaileak eta prentsako zentsurak indarra kentzen zizkieten.

Pentsa liteke foru–erregimenaren iraupena eta moderantismoaren bokaziozentralistaetabateratzailearen arteko ageriko kontraesanak euskal oligarkia eta Espainiako liberalismoaren alderdi aginkeriakoenaren arteko lankidetzaz zekarrela. Egia da Espainiako eta euskal agintarien artean, biak guztiz kontserbatzaileak politika eremuan eta katoliko sutsuak, ideologi kidetasunak eta klase interesek indar handiago izan zutela, estatu–ereduari buruzko ezadostasun zehatzak baino. Baina hau alderdi bat besterik ez da, borondate politiko ezari beharrezko neurri hertsatzaileen falta erantsi behar baitiogu. Baina progresistek ere, hainbeste aldiz Gorteetan berdintasunaren aldeko eta foruen kontrako erretorika erabili arren, ez zuten sartu inolako aldaketarik gobernura heldu zirenean: 1854–1856 biurtekoan, Milizia Nazionala ere ez zuten ezarri, Esparterok, beste garaian erregimena abolitu eta polizia foral desegin zutenak berak, Euskal probintzien eskaerei kasu egin zien eta Miñoien gorputzaren eta mikeleten eskuan utzi zuten ordena publikoren zainketa. Are gehiago, Isabel II.a bota ondoren, boterea berreskuratu zutenean 1868. urtean, gobernazio ministro Sagastaren ahotik honako konpromisoa hartu zuten: «*respetar los fueros mientras aquellas provincias respeten a su vez al gobierno*»⁵

ERAKUNDE–BIRMOLDAKETA LEHEN GERRA KARLISTA ONDOREN.

Lehen karlistada bukatzean, euskal liberal moderatuak, gerra zibilagatik suntsitutako komunitatea foruaren inguruan berregituratzeko lan latzaz

arduratu ziren. Bazekiten ongi gizarte–adostasuna berreskuratzeko ez zela aski erakunde–sare zaharra berrezartzea; edukiak eta erabilera zehatzak berrikustea ere ezinbestekoa zen. Oligarkia lurjabeak, nabarmentzen ziren elementurik absolutistenak baztertu ondoren, eta hiri–handikiek protagonizatu zuten berriro botere–bloke berriaren birkonpontzea, eta pentsamendu politikoarekin adostasun handiago zuen foru–doktrina berria egin zuten. Gainera, ondasundunek eta merkatariek administratiboaren defentsa eta ohizko pribilegio fiskal eta militarren jarraipena bereganatu zuten. Herri «barne arazoetan» gobernu zentralaren gerta litekeen baina inork nahi ez zuen eskusartzearen beldurrak, bi alderdien arteko laguntza, inolako ezberdintasunen gainera, erraztu zuten bitartean, haiek, erakunde probintzialen aurrean egindako jardueraren bidez, beren proiektu politikoaren gizarte–onarpenera bultzatu zuten.

Araban, landa eta hiri–handikien arteko berradiskidetzeak, Gipuzkoan eta Bizkaian bezala, probintziako boterearen birbanaketa ekartzen zuen, mendearen lehen herenean ondasundunek monopolioan zeukatena. Hori adierazi zuten gasteiztarrek gerra zibila bukatu bezain laster, foru–ordezkartzaren berrikusteko edo, halakorik ezean, antzinako eskumenak berrezartzeko eskatu zutenean. Egoera larria izanez eta foruak konpontzearen zain egoteagatik horrelako proposamenetik sor litezkeen ondorioak aurreikusiz, Blas Domingo Lópezek eta Pedro de Egañak beste hirugarren irtenbide bat proposatu zuten, tradizioarekiko begiruneko eta bi alderdiek har lezaketena: Gasteizeko udalbatza koadrila lerrunera igotzean, hiri–handikiek hitza eta botoa izan litzatekeela Batzar Nagusian nahiz probintziako kontuen urteko zentsuran. Helburu horrekin, ordura arte Gasteizekoan sarturik zeuden ermandade guztiak bil ditzan Añanako koadrila sortzea dekretatu zuen Probintziak 1840ko azaroan. Hamabost urte beranduago, ordaintze berri bat lortu zuten gasteiztarrek. «*Acto espontáneo eta libérrimo*»⁶–aren bidez. Batzar Nagusiak, 1855eko azaroan, Koadernoaren XII eta XVII ordenantzak derogatu zituen; ordenantza horiek erdiko hiri–klaseen ordezkari tipikoak, legegizonak, prokuradore izendatzea debekatzen zuten.



Herrán familiaren Etxearen aurrealdean dagoen armarría (Gesaltza-Añana). Foto Quintas.

Sistema herrira zabaltzeko eta adostasuna beste gizarte-taldeetara hedatzeko xedez, erreforma mordo bat egin ziren bereizkeria nabarmenenei aurka egiteko. Handik aurrera, esate baterako, ez zieten eskatu ermandadearen prokuradoreei handitasun agiria: konstituzioaren aurkakoa izateaz gain, forua integratzeko gogoaren guztiz kontrakoa zen eta. Horrekin batera, hauteskunde sistemen liberalizazio geldo bat jarri zen abian, foru karguen izendapenean biztanleen parte-hartzea, batez ere ermandadeek Probintziako Batzar Nagusira bidaltzen zituzten prokuradoreen parte-hartzea sustatzeko asmoz. Hala ere, hauetariko neurri batek ere ez zuen zalantzan jarri ondasundunen hegemonia, lurraldeko ordezkari-tza-sistema zaharra kontrolatzen jarraitu zuten; zeren eta lurralde-ordezkari-tza-sistema zaharra mantendu zen eta ahalordetzat ematen zuen ermandadean «etxea irekita» edukitzeko beharra indarrean jarraitzen zuen. Gasteiztarrek erabakitze gaitasuna eta ermandade-ordezkari-tzak ematen zien baino kontrol-gaitasun handiagoa zutela 1800eko lehen herenean egia bada ere, inoiz ez zuten berreskuratu botoen erdia foru-magistratu nagusia hautatzeko. Egia da ere 1840. urtetik aurrera ondasun gutxiko jabeak Batzar Nagusian agertzea ez zela

salbuespenekoa izan, baina alderantziz oso gutxitan iritsi ziren probintziako gobernuaren beste organo murrizgarriagoetara, alegia, Batzar Berezira.

Herri-partaidetza zabaltzeko saialdiak oso geldiro joan ziren aurrera, leku-handikiek ez baitzuten nahi boterea banatzea eta, haatik, herri-partaidetzak sarritan haien oposaketa sortarazten zuten. Buradon Gatzagan, esaterako, oraindino berrogeita hamar hamarkadaren amaieran, ermandadearen prokuradorearen izendapena handikien esku zegoen, horretarako aukeratutako bost hautesleren bidez. Lehen hauteslearentzat alkate izandakoen izenak eta bigarrenarentzat erregidore izandakoenak kontuan hartzen baziren ere, gainerako hiruak zozketaz hautatzen ziren, baina kontzeju-kargu horietako bat ere ez bazuten izan noble-estamentuaren kideen artean. Aurretiko operazio hau eginda gero, bostak korporazioaren idazkariarekin batera bakartu egiten ziren. Orduan, lehen hautesleak bere proposamena egiten zuen, eta bigarrenak ez bazuen aurkatzen, automatikoki onartzen zuten; ezezko kasuetan, beste hiru hautesleek hartzen zuten parte haien botoen bidez berdinketa hausteko. Harriztekoa da XIX. mende erdian oraindik Arabako herri askotan handiki eta zergapekoaren arteko bereizketa egiten zen, eta horixe Europan nagusitzen zen gizarte burgesarena ezaugarri izan beharrean, estamentuzko gizartearena zen.

Beste batzutan erresistentziak, hiribildu batek bakarrik prokuradorea izendatzeko zuen monopolioarekin erlazonaturik zeuden, ermandade berberaren beste herriei hitza eta botoa kenduz. Horrela gertatzen zen Guardian, Kripan, Eltziego, Bilar, Lantziego, Lapuebla, Leza, Moreta, Nabaridas, Oion, Paganos, Samaniego, Uriona, Biasteri eta Ekoran. Protesta eta aurre-protesta ugari egin ondoren Probintziak, 1861ean hamabi herri horiek horretarako sortutako bi ermandade berrietan sartzea agindu zuen, baten egoitza Eltziego eta bestearena Lantziego zirelarik. Zorte gutxiago izan zuten Astulez, Sobron, Karanka eta Larrazubi, Gesaltza Añanako ermandadeari zegozkionak. Etengabeko protesta egin arren, ez zuten lortu ermandade berezia

eratzea, ezta prokuradorearen izendatzean parte hartzea ere, nahiz eta garai oroitezinetik gesaltzar hiribilduari zegokion eskubide hori. Haien salaketaren bidez ezagutzen dugu erabilitako hauteskunde-prozedura. Kargua uzten zuen ahaldundunaren lehendakaritzan, udal-korporazioa eta hogeita lau hautesle biltzen ziren –azken hauek, aurreko agintaldian hautesle izan zirenek aukeratzen zituzten–, eta botoen gehiengoz ermandadearen ordezkaria izendatzen zuten.

Ikusi dugun bezala hauteskunderako prozedurak ermandadeen kopurua bezain ezberdinak eta ugariak ziren. Honela leku–boterearen egiturak, herri bakoitzaren indar ekonomiko eta demografikoak edota Arabako Ermandadearen biltzearen prozedurak baldintzatu zituzten, dudarik gabe, XV. mende bukaeran ezarritako hauteskunde–mekanismoak. Baina askotan mekanismoa hauek anakronikoak eta logikarik gabekoak ziren XIX. mende erdian. Hala ere, Probintziak zuhurki ekin zion erreformari, ermandadearen eskaera eta partaide guztien akordioa aurretiazko betebehartzat ezarri. Añana eta Buradon bezalako kasu bereziak alde batera utzita, herri partaidetza biztanleriaren neurriaren alderantzizkoa zela esan daiteke. Auzotar gutxiko barrutietan, Markiz, Oto edo Morillas bezala, ia–ia familia–buru guztiek hartzen zuten parte ahaldundunen hautaketan; auzotar gehiago zuten hiribilduentzako, berriz, 1845eko udal–legearen 111. tituluak ezartzen zituen murrizketak. Kontutan hartu behar da Arabako herri gehienek, azkenean, zentsu gisako hauteskunde–sistema moderatua onartu zutela, eta udal–hauteskunderetan botoa zutenek, prokuradorearen izendapenean ere edukitzen zutela.

Ikusi dugu nortzuk ziren hautesleak; ikus dezagun orain nortzuk ziren Arabako Batzar Nagusietarako hautatuak. Aski da ahaldunen zerrenda ikusta ermandadeen ordezkari zuten familia–kopurua zein murriztua zen jakiteko, kargua askotan gurasoengandik semeengana eskualdatzen zirela kontutan hartuz. Artziniega, non Murgas eta Partearroyos familietakoek 1845etik 1868 arte eten gabe parte hartu zuten, adibide paradigmaticoa dugu, nahiz eta salbuespena ez izan. Barruti bereko ordezkarien nomina biztanle kopuruaren arabera



gehitzen da, baina ordezkari zuten inoiz ez da agertzen familia–dozena erdi baino gehiago. Gasteizen ere baieztatzen da endogamiako joera hori, karguen txandaketa handiago badago ere, gizarte–eliteak oinarri murriztua baitzuen.

Batzar Nagusirako prokuradoreen lanbidea eta urteko errenta aski erraz berreraiki daitezke gorteen diputatuentzako hautesle–zentsuaz lagundurik. Laster ikusten da, bestela ezinean, nekazaritza alorrekin loturik dauden pertsonak nagusitzen zirela, probintziako aberastasunaren iturri nagusia nekazaritza baita. 1863an 54 ahaldun ziren guztira, eta hauetariko 49 baino ezin dira identifikatu; hauetariko 29 lurjabe ziren, eta 16 errentari. Gainontzeko lau jarlekuak militar erretiratu batek, merkatari batek, eskribau batek eta buztzingile batek betetzen zituen. Konposaketa mota hau holakoa izan zen, gutxi gora behera, agintaldi guztietan: nekazarien presentzia handia izan arren, lurjabeak gehiengoa ziren. Kontutan hartu behar da gainera, nekazariak gehienetan aberastasun eta biztanle gutxiago zuten ermandadeetatik etortzen zirela, leku–lurjabeek Gasteizen edo hiribildu populatuenean bizitzeko joera zuten eta. Horrela bada, 1845.



eta 1872. urte artean Guardiako prokuradore guztiak ondasundun ziren bitartean, Mendozako guztiak errentari ziren.

Nekazari asko baziren, bada, Batzar Nagusian, baina beste erakunde murrizgarrietan, batzorde iraunkor gisako Batzar Berezian, alegia-ez zen horrelakorik gertatzen. Batzar berezia, esaterako, zazpi kidek osatua zen, koadrilakako bana. Blas López kontsultagileak hautaketa egiteko erabiltzen zen prozedura horrela deskribatzen du: «*La junta General por aclamación o en votación nominal nombra un elector para que proponga los expresados empleos; éste se retira con el secretario de tierras esparsas, forma su elección, vuelve a la sala y da cuenta. Los procuradores así propuestos quedan nombrados*»⁷. Bartzar Berezi horrek, espedienteak ikertu eta haien berri ematen zuen

Batzar Nagusiaren batzordetara bidali baino lehenago; Batzordeek irizpena Osoko Bilkurara bidaltzen zuten, behin betiko erabakia hartzeko. Beti ez bazen ere, askotan Batzar Nagusiak Bereziaren txostenak baliozkotzen zituen.

Batzar bereziaren garrantzia foru-organigraman zalantzarik gabekoa denez, gauza berbera gertatzen da ondasun eta biztanle gehiagoko ermandadeen eraginaz. 1845 eta 1872 urte artean Batzar Berezian izandako 196 prokuradoreetatik –hots, urtean zazpi–, Gasteizek, Agurainek, Guardiak, Aiarak, Zuiak, Añanak, Artziniegak eta Bastidak erdia baino gehiago ekarri zuten. Are gehiago, hogeita zortzi agintaldietatik, hogeita zazpitan esandako zortzi ermandadeek Batzar Bereziaren zazpi batzordekideetatik gutxienez hiruz jabetu ziren.

Gasteizek soilik zuen ordezkaritza iraunkorra ziurtatua, baina Aguraingo ahaldundunek, aldiz, bi urtez behin hartu zuten parte Batzar Bereziari, eta Bastidakoei, gutxienezko partaideek, bost urtez behin.

Ermandadearen ordezkaritza abizen ezagun batzuek monopolizatzen zutelak kontutan hartuz gero, Probintziaren erabakitze gaitasuna familia-talde murriztu bati zegoen mugaturik. Talde hori probintziako benetako oligarkia zen, erregimenaren demokraziarako edozein irristadura kontrolatzeko beharrezko baliabideak zituen, eta eremu ekonomikoa ere nagusitzen zen. Aipatzekoa da, halaber, oligarkia hori ekonomia mailan ere oligarkia zela. Batzar Bereziari zegozkien bokalen artean ehunen bat daude identifikaturik eta hauetariko bat bakarrik zen nekazari –hau da, errentari –, lau industriari eta bost merkatari. Gainerakoak jabe ezagunak ziren, Batzar bereziaren batzordekide izan ziren bi eta hiru aldiz, Pedro de Ibarreta Aguraingo prokuradorea edo Zuiako Fernando Veá-Murguía bezala. Hiru urtez irauten zuen pertsona bakarreko kargua izanik, Aldundia zen, zalantzarik gabe, foruaren kargu garrantzitsuena. Izendapena, Blas Lópezen arabera, horrela egiten zen: *«por aclamación o consentimiento unánime de todos los procuradores constituyentes de la Junta General. No habiendo tal unanimidad se sortean siete electores, uno por cuadrillas de la forma siguiente: las hermandades que forman cuadrilla se encantaran separadamente de las demás y, a presencia de la Junta, se extrae una cédula que se entrega al Diputado General, éste la lee en presencia de todos los concurrentes y queda elector por aquella cuadrilla el procurador de la Hermandad favorecida. Lo mismo se practica con las demás. Estos siete electores prestan juramento en el acto según la fórmula ya establecida, se trasladan a un sitio separado e independiente, y conferenciando entre sí hacen el nombramiento. Si éste reúne cuatro votos de los siete, forma elección. Si sólo se reúnen tres por una persona y tres por otra, se da parte a la Junta del resultado, y ésta echa a suerte entre los dos candidatos. Si no hay mayoría de cuatro ni empate de tres, se vuelven a reunir los electores, apercibidos de que no presentando en la nueva reunión elección de cuatro o empate de tres, pierden*

*su derecho, y la Junta General en este caso procede a un nuevo sorteo de electores. Todo esto se hace en una sola sesión desde la eleutoria de 1804.»*⁸

1839 eta 1877 urte artean Arabako Foru Aldundian kargua eduki zuten Arabako hamahiru handikien artean –edo hobeto hamabi, Benito María de Vivanco berrautatua izan baitzen–, erdia aldarriz izendatua izan zen eta beste erdia hauteskunde-prozedura arruntaz. Diputatu nagusiak nahiz haien diputatu-ordeak gizarte-maila onekoak ziren. José Bravo-ren kasua alde batera utzita, honen izendapena beherago azalduko baitugu, beste guztiak arabar leinu gorenetatik zetorren eta noblezia-agiriaren jabe ziren, eta Gasteizeko auzotarrak ez zirenean beraien sortetxeetan bizi ziren. Heziketa juridiko sendoa zuten sarritan, Vivanco, Ortiz de Zárate, Ayala edo Egaña bezala, legegizonak baitziren. Ekonomia-talde kaudimenduna osatzen zuten, sozialki ongi errotuta, ideologikoki trinkoa eta oso ezaguna Herrian. Aldundirako sarrera, askotan, karrera politiko bikainaren gailurra izan zen. Kargua bete eta berehala Probintziaren Aiten zerrenda luzea betetzera pasatzen zuten.

Aristokrazia lurjabearen interesak ongi ordezkaturik baziren (eta honen argibide ona Vivanco, Olano, Varona eta Mendieta gisakoak ditugu), hiri-handikiek ere ez zuten kezatzeko arrazoi handirik, Ortés de Velasco, Zárate, Ayala eta Martínez de Aragónen presentziak egiaztatzen duenaren arabera. Aparteko iruzkina merezi dute Pedro de Egaña eta Estanislao de Urquijoren sarrerak, biak gasteiztarrak baina Madrileko egoiliarak. Lehena, alderdi moderatuaren militante nabarmena, ministro bi aldiz izana, Estatu-Kontseiluaren kidea eta erregina amaren adiskide handia, behin baino gehiagotan probintzia honetako parlamentaria izan zen, eta mandatari bezala jardun zuen foruen konponketarako. Baina kargu horiek guztiak alde batera utzita, Egaña probintziako oligarkiaren ordekarri ofiziosoa zen erresumaren hiriburuan. Batzar Nagusiak 1864ko azaroan bereiztu egin zuen probintziako lehen magistratura emanaz, berak Senatuan egin zuen foruen defentsa sutua egitegatik.

Finantzari eta negozio-gizon ospetsua, Urquijoren izendapena ere ongi neurtutako strategiaren ondorioa zen; estrategia hau Isabel II.aren botatzearen eta alderdi moderatuaren sineste ezaren ondorengo politika-aldaketarekin lotuta zegoen. «*Iraultzaren bankaria*», Amadeo de Saboya-k emandako bere abizenaren markesgoaz noble turik, Urquijo, Egaña-k hogeita hamar urtetan zehar probintziako oligarkia eta Madrileko klase politikoaren artean usatu zuen arartekotasunaren jarraitzailea zen. Diputatu Nagusiaren kargurako izendapena testigantzakoa izan zen, arazo pribatuak ez baitzioten uzten hiriburutik aldentzea. Probintziako egiazko administrazioa Ramón Ortés de Velasco, bere diputatu-ordearen esku geratu zen, eta azken karlistadagatik 1876 urte arte kargu horretan egon zen.

Erakundeen azaleko deskribapen honek probintziako gobernu-organoen murriztasuna berresten digu. Batzar Nagusia hautatzeko herri-partaidetza aski zabala zen bitartean, Batzar Berezirako sarbidea handiki-talde murriztuaren esku zegoen, eta Aldundia, berriz, Arabako familia ospetsuenetarik kideentzat baino ez zen, nahiz eta askotan Aldundiko kargua eta Parlamentuko postua biak batera betetzen zuten. Hala ere, oligarkiaren ekintza hauek ez zuten sortu inolako oposaketarik: Euskal Herrian, ia beste leku guztietan bezala, demokraziaren baloreak arrotzak ziren kultura politikoarentzat. Menpeko klaseen jarrera adeitsua tradiziozko agintariekiko foru-erregimenaren funtsezko osagarri bezala sartua eta mitifikatua izan zen. «*La obediencia a las autoridades de fuero*», adierazten zuten Pedro de Egañak eta Blas Lópezek 1852an, «*no es en las montañas vascongadas un trato arrancado por el temor sino un movimiento espontáneo, tan tradicional y hereditario como los fueros mismos de los que directamente emana. Allí el poder público no necesita recurrir a la fuerza para hacerse obedecer; allí no se alza jamás la voz contra el mandato de los superiores; allí no han penetrado aún esas doctrinas peligrosas y subversivas que han hecho y están haciendo tantos estragos en otros países menos venturosos*»⁹.

Egaña eta López ez ziren izan gerren arteko aldiaren asmatutako foraltasun berriaren ideologo bakarrak. Foraltasun berri honen mugak honako

hauek ditugu: historizismoa, erregimenaren oinarri bezala; ruralismoa, bizimodu ideiala bezala; abertzaletasun bikoitzaren errebindikazioa, Espainiakoa eta Euskal Herrikoa; eta fundamentalismo erlijiosoa, idiosinkrasia honen elementu sakralizatzaile bezala. Europako pentsamendu kontserbatzailearen zenbait korronterekin kidea zen munduaren ikuskera honen gainean finkatu zen Euskal Oligarkiaren nagusitasuna. Jakobinoen gisako plebisituzko demokratismoaren aurrean, talde horrek tradizioaren alde egiten zuen, kontzienteki asmatutako tradizioaren alde. Zentzu honetan foruzaleen ideologiak, ez zuen moderantismoaren postulatuaren aurka egiten; eta ez hori bakarrik, ahaidetasuna ere bazegoen haien artean. Are gehiago, foru-erregimenak kontserbatzaileenen utopia praktika mailara eramaten zuen, harmonizatzen baitzuen berdintasun teorikoa eta oligarkiaren jarduera; gainera, printzipio politikoen eta haien moldatze praktikoen arteko holako antinomiak ez zituen jartzen zalantzan sistemak.

Foru-erakundeek, tradiziozko legitimitatea dela eta, duda gabeko aginpidea zuten; gainera erakundeek tradizioaren gordelari bakarrak ziren, horren adierazle nagusia Aldundia zela. Izan ere, Aldundia foru-eraikuntzaren giltzarri eta sistemaren zutabe bilakatu zen, zeinen inguruan beste elementu guztiak egon behar ziren. Egiaz, Erakundeen grabitate erdigunea lekualdatu zen: Udaltzatek, 1833 arte foru-erregimenaren muina zen leku-autonomia galdu zuten; eta ez hori bakarrik, Batzar Nagusia ere indarra galduz joan zen Aldundiaren alde. Aldundia, Isabel II.aren erreinuan izugarritzko eskumenak bereganatu zituen, probintziako antolatzaile nagusi bilakatu zen.

ALDUNDIAREN PROTAGONISMO HAZKORRA

Batzar Nagusiak Probintziako agintaritzaz zuzenez, Aldundiak foru-magistratu nagusiak bere jardueraren berri eman behar zion erakunde horri. Baina botere-sistemaren egitura berriaren ondorioz funtzioak alderantzikatu ziren, praktika mailan ustezko kontrol hori formalismo huts bihurtu baitzen. Administraziozko gestio onaren eta gobernu zentrala «*barne-arazoetan*» ez sartzeko hainbeste aldiz erakutsitako

eraginkortasunaren babespean, Aldundiak presidentzialismora jo zuen gero eta gehiago. Askotan Diputatu Nagusiak, Batzar Nagusian aurkeztu baino lehen ezagutzen zituen prokuradoreek aurkeztuko lituzketen mozioak, Batzarraren eztabaidatan parte hartzen zuen botazioaren azken emaitza baldintzatuz, edo probintziako aurrekontua aldarazten zuen fondoak partida batetik bestera aldatuz aurretiko baimenik gabe. Pixkanaka-pixkanaka Batzar Nagusiaren tutoretzatik askatuz joan zen eta formarekiko errespetu handiago edo gutxiagoa titularraren nortasunaren arabera zen, honek asanbladaren aurretiko oniritzi baitzuen.

Aldundiaren protagonismo hazkorra ekonomiaren indarketaren kausa eta ondorioa izan zen aldi berean: 1800. eta 1868. urte artean probintziako Ogasunaren diru-sarrerak hamar bider aniztu ziren, sei ehun mila errealetatik zazpi milioitara pasatuz. Fiskal eremuari dagokionez, zerga-sarea sistema politikoaren oligarkizazioan islatzen zen. Zeharkako zergen protagonismo osoak, zuzeneko eta proportziozko zerga modernoaren aurrean, zama fiskalaren banaketa injustua ekartzen zuen: mendearen seigarren hamarkadaren amaieran baino ez zen proposatu zerga-sistema gaurkotzeko beharra, tabakoak eta bidesariek izugarritzko jaitziera jasan zituenean. Zama fiskalaren banaketa injustua izan arren, zergapenezko politikak ez zuen sortu oposaketa handirik. Eta hori bi arrazoiengatik. Lehenengoz, Arabako ekonomiaren ezaugarriengatik, ekonomia menperatzen zuten nekazari txikiek ez baitzuten salgai zergapetuen beharrik. Bigarrenez, Diputazioak dirutza handia erabili baitzuen ekonomiaren garapena bultzatzeko -bide-azpiegitura finantzatzeko, eredu-basetxea eraikitzeko, nekazaritza eta abelazkuntzazko lehiaketak sustatzeko, oihan-birpopulaketa egiteko, etab.-, eta laguntzako politikari ekin zion benefizentzia, osasuna, hezkuntza etab.ekoei, alegia-, eta horrek probintziarteko solidaritate sentimendua zabaldu zuen.

Aginte paternal batean eta gestioak egiteko ongi frogatutako eraginkortasunean babesturik, estatuko enplegumania eta ustelkeriari aurka eginez, organo exekutibo eta probintziako administrazioaren eratzaile bilakatu zen Aldundia. XVIII. mende bukaeran, Miñoiak

sortzean, ordena publikoa eskuratu bazuen ere, bere protagonismoa asko handitu zen lehen karlistadaren bukaeran. Administraziozko zentralizazioa sendotu egin zen toki entitateen finantzen eta jurisdikziozko kontrolaren bidez. Aldundiak 1845ean udal-ogasunaren fiskalizazioa eskuratu zuen, eta hiru urte geroago, Errege-Agindu bidez, posizio nagusia lortu zuen probintziako kontseiluan, zein administrazioarekiko auzitegien antzekoa zen, moderatuek sortua administrazio lokalaren kontrola errazteko.

Probintziako oligarkiak, moderatuek bezala, zentralizazioa administrazio-eraginkortasunarekin parekatzen zuen. Dinamika berria, alde batetik, bien arteko identifikaziotik sortzen da. Eta bestetik, Espainiako Estatu liberalaren eraikuntza berezitik, Estatu liberalak onartu baitzuen foru-erregimenaren interpretazioa, hau da, Aldundiari emandako «barne-administrazio» sistema zela. Era honetan buruzagiek botere zentralaren eragina urruntzea lortu, eta honekin batera, estatu berriak sortzen zituen baliabideetaz jabetu ziren. Udaltzak, bi alderdien artean harrapatu, hau da, moderatuen ezpataren azpian eta Aldundiaren hormaren aurka, armagabe geratu ziren. Korporazio lokalen fiskalizatzeko instantzia zenez, Aldundiak udal-autonomia murriztu zuen eta horrela udaltzak haien aginduen igorle huts bilakatu ziren.

Udalbatzen funtzioaren birmoldaketa organigrama foralaren barruan hauteskunde zentsuzko sistema moderatuaren ezarketaz osatu zen. «Herri-elementuak» gobernu lokaletik aldentzean, zutabe ekonomiko eta politikoa tradiziozko praktika oligarkikoak bezain eraginkorra zen. Eta zenbait lekutan indarrean zegoen noblezia-agiria eskatzea baino egokiagoa garai hartarako. Gainera, sistema berriak Arabako herri askotan jaun feudalek beheko Erdi Arotik zuten indar eta eraginarekin amaitu zuen. Zentsuzko ordezkari maila oneneko auzotarrek arazo lokaletan jarduera beraientzat gordetzen zuten. Udal-lege moderatuaren hartzeak handikien nagusitasuna konstituzionalizatu zuen udal-esparruan. Ikuspuntu honetatik foru-erregimena botere lokal eta probintzialaren arteko tandem bikain bat bezalako itxura hartzen ari zen.



1646. urtean agindu zuten mazo hauek egitea, eta mazolariak eramaten zituzten Biltzar Nagusiak egiten zirenean. Arabako Foru Aldundian. Foto Quintas.

Isabel II.a bota zutenean, deszentralizatzeko gogo amorratua penintsulako geografia osoan hedatu zenean entzun ziren lehen aurkako hizlariak. Joaquín de Partearroyok, Artziniegako prokuradoreak, 1868ko azaroaren Batzar Nagusiaren aurrean, zentsuratu zituen Aldundiak erakunde lokalen gainean erabiltzen zuen gehiegizko babesa nahiz udalbatzen gutxiegi ordezkaritza. Bere ustez, ezinbestekoa zen Batzar Nagusiaren indarra gehitzea Aldundiaren aurrean, eta handiki lokalen eragina murriztea ordura arte aginte nagusiak eta udalbatzak elkarrekin bidegabeki edukitzen zuten udal-fondoen erabilera. Honako argibide hau erakusten digu salaketa hau egiteko arrazoiak bazirela: Batzar Nagusiak izendatutako batzorde bereziak horri buruz ardura handia hartu zuen. Azken ebazpenetan korporazio lokalen demokratizazioa ezik, ondoko hau ere gomendatzen zuen: «*acabar con esa hidrofobia de la centralización que se ha pretendido inocular en la mayor parte de las disposiciones que se han dictado por la Diputación en los últimos cuarenta años*»¹⁰.

Probintziako magistratura nagusiaren funtsezko garrantzia kontutan hartzen badugu, ez da harritzekoa boterea lortzeko borroka Aldundiaren kontrolaren inguruan gerta dadila.

Arabian estatuko alderdi politikoek oso indar gutxi zeukaten. Agintari-klaseak liberal eta foruzale bezala aurkezten zuen bere burua eta interes handiago zeukan politika lokalean Estatuko arazoetan baino. Askotan diferentzia ideologikoen baino elkarrekiko norgehiagoketek zuten pisu handiago. Hala ere, bat ez etortze handienak 1839ko urriaren 25eko legean zetorren foruen «*konponketa*» egiteko estrategia finkatzean sortu ziren. Amore emaileek, erregimen forala eta konstituzionala ados jartzeko zailtasun objektiboak ongi zekitenez, jarrera posibilista hartu zuten. Egoerak bultzatuta, foruen aurkako zenbait xedapen onartzen bazuten ere, ez zuen inolaz ere onartu autonomia administratiboaren murrizketa txikiarik, Mon-Santillánen erreforma fiskala aplikatzerik, ezta bake garaian derrigorrezko soldadutza ezartzerik ere. «Guztia ala ezer ere ez»-aren aldekoak ziren intrantsigenteek, haien aldetik, aurretiko baldintza hau jartzen zuten: negoziaketak hasi baino lehenago, 1839 urteaz geroztik egindako kotraforu guztiak desegin daitezela. Hala ere, Ortíz de Záratek Diputazioa heldu zirenean lortutako oreka mantentzen saiatu ziren, eta salaketa erretorikoa besterik ez zuten egin.

Agintari-klasearen homogeneitateak ez zuen lortu tentsio batzuk ez agertzea. Tentsio zaratatsuen Pedro Egaña berriz diputatu nagusi kargurako hautatu zutenean izan zen. Lehendabizikoz hautatu izan zenean, 1864ko azaroan, intrantsigenteek haren kandidaturaren aurka egin zuten, Diputazioa alderdi moderatuaren barruan egoera indartzeko erabil zezakeela beldur zirelako. Ortiz de Záratek, diputatu nagusiaren kargutik irtetea, hautaketa sistema arruntaz egitea eskatu zuen, Egaña aldarriz hauta dadila galaraziz. Ministro izanak zazpietatik lau boto lortu izan arren, Gasteizko ordezkariak hautaketaren aurka egin zuten, «*quien no es vecino de ninguna de las hermandades de Alava*»¹¹ ezin zuela foru-magistratura nagusian agertu. Protestak, hala ere, ez zuten aurrera egin. Batzarreko gehiengo hautaketarekin bat etorri zen eta etortzeko eskatu zion Egañari kargua eskaintzeko. Baina beste arazo bat gertatu zen. Eduardo de Echevarriak, Gasteizko prokuradoreak, bere burua ziritu behar izan zuen jendaurrean, Egaña «*hombre perjudicial o peligroso para la Provincia*»¹² zela esateagatik.

Mazolara, 1912. urtea. Egilea: Fausto Crespo (Vitoria-Gasteiz 1894-1959). Mihisean egindako olio, 115,5x69,5 cm. Arabako Arte Ederren Museoa, 156. inbentario-zenbakia.

Zarate eta Egañaren arteko antzinako lehia gogor agertu zen hiru urte ondoren, Batzarrak bere konfiantza berriro eman zionean, ordenantza foralak ezartzen zuen hutsartea errespetatu gabe. Aitzindariak baziren ere, gertaera honek gaizpidea sortu eta arabarrak banatu zituen. Hasieran gutxiengoak, puristek, Záratek gidaturik, prentsa-kanpaina suntsitzailer bati hasiera eman zioten El Fuerista orrialdeetan, eta Egaña-ren aldekoen gehiengoa epe laburrean desegin zen. Bitartean, ermandade disidenteez, Gasteizeko buruzanik, Estatu-Kontseiluaren aurrean hauteskunde berriak egitea eskatu zuten Francisco Juan de Ayala eta Domingo Martínez de Aragónen bitartez. Egañak, espero zatekeen kontra, ez zuen aurkitu laguntza handirik Madrilen, zeren eta bere etsai berezia, González Bravo, Gobernuburu zen, Narvaez jenerala nahitaez erretiratu zenean. 1868ko maiatzaren 1eko errege-aginduz, Isabel II.ak Egaña kendu zuen eta beste hauteskunde batzuk egitea agindu zuen tradiziozko prozeduraren arabera.

Ladislao de Velascok bere Memorias direlakoetan defendatzen duen bezala, gatazkaren giltza Egañak kultu eta apaizteriarri ordaintzeko sortu zuen erreforman bilatu behar dugu. Esan dugun legez, euskal probintziak 1845eko erreforma fiskaletik at geratu ziren, gastu izpiritualak ordaintzearen truke. Baina Aldundiek bere gain hartutako konpromiso hori udalbatzetara zabaldu zen, eta hauek ados jarri behar zuten elizako kabildoekin. Araban, gehiago ala gutxiago urritutako hamarrenak mantentzea erabaki zen. Sistema honek, ordea, protesta ugari sortarazi zuen, batez ere herri txikienetan, ekitaterik ez zutelako. Elizgizonak, beren aldetik, sari txikiaz kexatzen ziren, ez baitzen aski Konkordatuak ezartzen zituen minimoak lortzeko. Pixkanaka-pixkanaka alde bikoitzeko parrokia-erreforma egiteari ekin zioten. Elizbarrutiko agintariak elizgizonen kopurua murrizteko aukera aztertzen zuten bitartean, Egañak kultu eta apaizteria deituriko zerga sortu zuen, bazterkeriarik gogorrenak alde batera uzteko asmoz. Udalbatzak ordura arte Gasteizek ordaintzen zuena bostekin biderkatu egiten zela ikusi zutenean, hobeto ulertzen da Egañak gasteiztarren artean lortutako onarpen txikia.



FORU-ERAKUNDEEN ABOLIZIOA

Seigarren hamarkadaren amaieran, probintziako administrazioaren oinarriko planteamenduek, lehen karlistadaren bukaeran diseinaturikoek, berrikuspen sakona behar zuten. Batzar nagusiaren aurrean arazo nagusiak proposatu ziren; esaterako, udal autonomia edo zerga-sistema zaharra berritzea; eta honek ordezkartza-sistema ere gaurkotzea eskatzen zuen, ermandadeen erabaki-gaitasuna zerga-ekarpenarekiko proportziozkoa izateko. Hala ere, inork ez zuen iragartzen eskakizunak bideratzea eta lortzea ezinezkoa izango zela. Egaña berrautatzean tentsioak agerian agertu izan arren, Probintziak gizarte-adostasun handia eta erakundeek erakutsitako malgutasuna zituen bere alde. Malgutasun hori ondo baino hobetu agertu zuten egoera historiko guztietan. Baina kanpoko gertaera batek ebaki zuen

eztabaida, oraindik hasierako fasean zegoenean. 1868ko irailean Isabel II.a bota zutenean, gizarte eta politika eremuan ezegonkortasun sakonak suertatu ziren eta, ondorioz, kontziliaezinezko bi alderditan banatu zen Arabako –eta euskal – gizartea.

Uzkailteza jakin bezain laster foru–agintariek iraultzailearen alde agertu ziren; unionistek, progresistek eta demokratek osaturiko koalizioa zen. Bizkaian eta Gipuzkoan bezala, gobernu–batzordea eratu zuten ordena publikoa mantentzeko eta iragapen baketsua bermatzeko asmoz. Baina hasierako lankidetzamesfidantzabilakatu zen Serranoren behin behineko gobernuak programa politikoa agertu zuenean. Foruzale kontserbatzaile eta ultrakatolikoek guztiz ezesten zuten estatu demokratiko eta laikoaren erakuntza. 1869ko urtarrilean ospatutako hauteskunde konstituzio–emaileetan, gizonezko sufragio unibertsalaz egin ziren lehenengoetan, koalizio iraultzaileak emaitza eskasak lortu zituen Euskal lurraldeetan eta Nafarroan: jokoan ziren hamasei postuetatik bi bakarrik eskuratu zituen. Gorteetan, foruzale parlamentariak oposaketa gogorra egin zuten aurreproiektu konstituzio–emailearen aurka, eta aurkako jarrera hori kalean eta prentsan agertu zuten. Semanario Católico Vasco–Navarro deituriko astekariak konstituzio–emaileen joera antiklerikala inolako ardurarik gabe zentsuratu zuen bitartean, manifestaldiek izugarriko gorakada izan zuten, eta kaleko istiluak gero eta handiagoak izan ziren Carlos VII.aren alde.

Ez litzateke zuzena izango, ordea, karlismoa erlijiozko lehiara murriztea. Biztanleria gehienak katoliko sutsutzat jotzen zuen bere burua, eta erlijioaren aurkako edozein eraso beraien sinesmenaren aurkakoa zela uste zuten. Hain gogor jokatu zuten foruzaleek eta elizgizonek erlijio eta foruak bateratzeko, ezen oso zaila zen askorentzat bi arloen artean bereizketa egitea: Gasteizeko udalbatzan zeuden guztiak bota zituzten, 1869an onestutako konstituzioa ez zutelako zin egin nahi. Ardura erlijiosoaz gain, beldur politiko hutsa ere bazuten: euskal politikarien arteko askok ezinezkoa ikusten zuten tradiziozko bizimoduaren eta kulturaren iraupena, Jaungoikoa eta Lege Zaharra formula sakratua, Estatu demokratiko eta laikoaren aurkakoa baitzen. Herriak ikusitako

agitazioa hain bortitza izanik eta euskal probintzien egoera berezia kontutan hartuz, begirunez jokatu zuen Gobernu zentralak; baina jarrera honek ez zuen galarazi tradizionalisten gorakada; tradizionalisten artean diputatuak izandako Juan de Ayala, Ramón Ortiz de Zárate eta Francisco María de Mendieta ditugu, besteak beste.

Tradizionalismoa agertzeak, irailaren iraultzean moderatuek jasan zuten porrotarekin harreman estua du. Lehen gerra zibilaren bukaeran, moderantismoaren garaipenak –liberalismo eta kontrairaultzaileen arteko benetako sintesia–, karlismoaren desegite politikoa erraztu zuen, eta karlismoa, handik aurrera, hondar–ideologia bezala geratu zen, eduki zehatzik gabe, aldarrikapen dinastikoa salbu. Euskal Herrian, berriz, gauzak oso ezberdinak izan ziren. Foruzaleek babesturiko legendazko literatura–mota batek, bertsio autoktonoak, era heroiko baten gogo hutsean utzi zuen karlismoa. Hala ere, gauzak aldatu ziren 1868tik aurrera. Iraultza demokratiko eta laikoak errespetagarriak deituriko gizarte–klaseak izutu zituen leku guztietan. Ikuspegi honetatik tradizionalismo karlistak alternatiba politiko kontserbatzailea egiteko asmoa ordezkatzen du, mugimendu iraultzailea baretzeko gai dena, batez ere Karlista zaharren, berrien eta Isabelen aldeko desenganiatuen batasunarekin. Hortik dator mugimendu honen konplexutasun ideologiko eta soziala: monarkia katoliko eta tradizionala berrezartzea ezinezkoa zela konturatu zenean, altxamendu armatuaren bidea hartu zuen, 1872ko udaberria eta udaren artean.

Guda arloari dagokionez, karlismoak aukerarik onena izan zuen 1873an. Kubako gerra zabaltzen zen bitartean, Errepublika aldarrikatzeak koalizio iraultzailearen hondakinak birrindu zituen, errepublikanoen arteko gorabeherak kantoiaren altxamendua sortarazi zuten eta indiziplinak armada ukitu eta ofiziale asko beraien menpekoek erditik kendu zituzten. Honelako egoera honek ezin zuen luzaro jarraitu. Militar kontserbatzaileenek lagundurik, Serranok, 1874ko hasieran, diktadura gogorra inposatu zuen ordena berrezartzeko, ia sei urtetan bi proiektu politiko ezberdin –monarkia demokratikoa eta

errepublika federaleko esperientzia– porrot egin ondoren. Erregimen demo–liberalak etorkizunik ez zuela ikusiz, erresaka iraultzailearen ondoren bizirik geratu ziren indar politiko gehienek lagundu zituzten Antonio Canovas del Castelloren planak aurrera eramateko: monarkia konstituzional eta borbonikoa berrezartzea zen irtenbide bakarra egonkortasuna bermatzeko.

Alfonso XII.aren aldarrikapenak, 1874ko azaroan, espero ziren baino ondorio gehiago izan zituen. Diziplinaren berrezartzeari gudako ahaleginen koordinazio hobea erantsi zitzaion eta karlisten armada, Euskal Herriko eta Nafarroako lurraldeetan indarra zuena, gauditurik geratu zen 1875eko udan jaurtikitako erasoaren aurrean. Garaipen militarren ostean politikoak etorri ziren. Canovasen erregimen kontserbatzaile eta moderatuak Isabelen aldeko zaharrak erakarri zituen, ordura arte Carlos jaunaren aldekoak izandakoak, eta oraingoan alderdiaz aldatu ziren. Gerra zibilaren bukaera, denbora–arazoa zen. Euskal liberalek bazekiten hori. Eta bazekiten ere Foru–arazoa gatazkaren emaitzaren menpean zegoela, Alfonso XII. ak, ez alferrik, agindu baitzuen Azkoienaren foruen jarraipena borroka uztearen truke. Hala ere karlistek edozelako negoziaketa ezetzi zuten eta lepoa egitea erabaki zuten. Bere armadaren hondamena zela–eta, Carlos jaunak, lur jota eta etsia, Frantziako muga zeharkatu zuen 1876ko otsailaren 28an.

Gatazka bukatu eta berehala Cánovasek euskal Aldundien ordezkariak deitu zituen. Ministroen kontseiluaren lehendakariak, 39ko legearen 11. ataleko aginduaz baliatuz, foruak «batasun konstituzionalari» egoki zekiola beharrezko aldaketak sortzeko erabakia zuen. Lehen bezala, ospe handiko liberalek bere gain hartu zuten Herriaren defentsa eta maiatzaren baterako jarritako bilerara abiatu ziren. Honako hauek osatzen zuten Arabako delegazioa: Mateo Benigno de Moraza, probintziako kontsultaria eta Gasteizeko Diputatua izana; Camilo Castañares, Jacinto Arregui, Genaro de Echevarría, Ramon Argüelles, Ladislao de Velasco, Pedro Lahidalga, Ramón de Arriola eta Bruno eta Domingo Martínez de Aragon anaiak. Laster desagertu ziren akordioa

lortzeko aukerak. Cánovasen proiektu politikoaren sinesgarritasuna eta euskal probintzien exentzio fiskala eta militarra bateraezinak baziren, Aldundien ordezkariak inolaz ere ez zeuden prest foru–erregimenaren zutabe bati uko egiteko. Gorteetan ere ez zuten lortu laguntza handirik euskal parlamentariak, alde zuzenetik haien auka jokatzeko joera baitzuten. Morazaren hitzaldiak –«*a la sobra de los fueros nacimos y a la sobra de los fueros quisieramos morir*»¹³ hitz hunkigarriez amaitu zuenak– gobernuaren lehendakaria hunkitu ote bazuen ere, ez zuen bere burua makurtu. Parlamentuaren gehiengo erosoak edukiz, konstituziozko bermeak aldi baterako geldirik egonez eta Armada oraindik Herriaren jabea izanez, Cánovasek ongi zekien ezin zuela alde batera utzi horrelako egoera egokia bere planak aurrera eramateko. Horrexegatik edozein erresistentziak porrot egin beharko luke nahitaez. 1876ko uztailaren 21eko legearen lehen atalak honako hau ezartzen zuen: «*Los deberes que la Constitución política ha impuesto a todos los españoles de acudir al servicio de las armas cuando la ley les llame, y de contribuir en proporción de sus haberes a los gastos del Estado, a los habitantes de las Provincias de Vizcaya, Guipúzcoa y Alava del mismo modo que a los demás de la Nación*»¹⁴.

Aldiz, ez zuten ezer esaten instituziozko berezitasunez. Legeak, bestalde, ahalmen handiak ematen zizkion gobernuari betebeharrak konstituzionalak indarrean jartzeko, beharrezkoak ziren jardunbide egokienak aukeratzea foru ldundien irizpidean utziz, hauen jarraipena ez baitzen zalantzan jartzen. Pentsa lezake Cánovasen asmoa ez zela euskal probintzien autonomía administratiboarekin bukatzea, ordura arte Estatuarekiko harremanak arautu zituzten bestelako printzipio juridikoen gainean ezartzea baizik.

Hala ere, foru–agintarien oposaketa setatiak akordiorako bide guztiak itxi zituen. Araban, 1876ko irailaren 5ean diputatu nagusi aldarrikatuz Domingo Martínez de Aragón izan zen erresistentziaren buru. Hiru egun geroago, irailaren 8an, aipatutako legea foruen aurkako zela salatu zuten Bizkaiko eta Gipuzkoako Batzar Nagusiek ere bai. Hiru Aldundiek batu eta uztailaren 21eko legea ezartzeko gobernu

zentralari edozein laguntza emateko uko egin zuten. Are gehiago, Koroaren bitartekotza eskatu zuten elkarrekin, alferrik izan zen arren. Aho bateko eta aurreko gaitzespen hau ikustean Cánovasek, haserre, estrategia aldatu zuen. Pertsuasio bideak porrot egin zuenean, agindu zehatzak eta hertsia bidali zizkien gobernadore zibilei probintziako altxortegietan esku-hartzeko eta aliatze militarra eragiteko.

Horrelako eta hainbeste presiok ondorioak izan zituzten azkenean. Erantzunbehar ikaragarriekin txunditurik, Martínez de Aragónék, gobernadore zibilaren aurretiko baimenaz, Batzar Bereziaren deialdia egin zuen otsailaren 23rako. Sarrerako hitzaldian gogor salatu zituen gobernu zentralak behin eta berriz egin izan zituen kontraforuak: desamortizazio-legeen aplikaziotik hasita aldundiari agiri ofizialetan titulu forala erabiltzeko ezarri izan zioten debekua arte. Batzarrak laguntza osoa emango balio, presio guztien aurka egiteko prest zegoela irmo aldarrikatu zuen. Baina ez zuen lortu, Batzarrean batez ere Cánovas-ekin akordioak lortzearen aldekoak ziren. Irailaren 8an onetsitako erabakien eta diputatu nagusiaren iritzia aurka, Batzarra ordura arte Bizkaia eta Gipuzkoarekin izandako batasuna hausteko prest zegoen. Bukaeraren hasiera zen. Martínez de Aragónék nahiz José Gancedok (haren diputatu ordeak) bazekiten eta nahiago izan zuten dimisioa aurkeztea amore ematea baino. Batzarrari dimisioari buruz eztabaidatzen utzi gabe, José María de Eulate gobernadore zibilak bilkura bukatutzat eman zuen.

Beste bi bilera ospatu ziren 1877an: bata berezia, ekainean; eta bestea arrunta, azaroan; bietan José Bravo, amore emaleen buru, mahaiburua izan zen. Lehenengoan Batzarrak bi erabaki hartu zituen, eta bi erabaki horiek otsailaren haustura baino ez zuten finkatzen. Alde batetik dimisioak onartu, eta José Bravo, Eltziegoko prokuradorea, Diputatu Nagusi izendatu zuen eta Zuiako José de Irabien Diputatu Orde hautatu zuen; bestetik, batzorde berezia sortu zuen «*para que, en unión de la Diputación y la junta Particular pudiera tratar, sin limitación alguna, con el Gobierno de su Majestad sobre todo lo conexas con la ley de 21 de julio*»¹⁵

Hala ere, negoziaketak ez zuen arrastakarik izan. Cánovasek ez zuen inolako asmorik arabarrekin gauzak konpontzeko bizkaitarrek eta gipuzkoarrek etsaiak izaten jarraitzen zuten bitartean. Iseka egin ziotela konturatu zenean batzordeak errotik aldatu zuen bere jarrera: azaroaren 21eko Osoko Bilkuran aurkeztutako txostenean, Probintziako eskubideak urritzen zituen edozein transakzioaren aurkako agertu zen. Baina berandu zen jadanik. Gobernadoreak Batzar Nagusia desegin zuen proposamenaren bidegabekeria arrazoituz, eta gobernadore zibilak Batzar Nagusia desegin zuen, eta inoiz ez zen bilduko berriro. Horrela bada, lauhun urtetako Historia baino gehiagoko erakundeari amaiera eman zion.

Euskal gizarteak foru-erakundeari buruz zuen «iritzi-batasunak», mendearen lehen herenean gertatu izan ez zenak, ez du argitzen soilik 76ko legeak sortutako huts-egite izugarria. 1878ko otsailaren 28ko Errege-Dekretu bidez emandako erregimen bereziaren geroko emakidaren kausa ere izan zen. Erregimen kontzertatuak –Cánovasek asmatutako ideia berantiarra bere nortasuna mehatxaturik eta uste sakon handienak bortxaturik ikusten zuen herriarekin onezkoak egiteko–, euskal nortasun historikoaren onespén implizitua suposatzen zuen. Baina hau beste historia bat ba.

OHARRAK

- ¹ “Merkatariei, hau da salgaiak saltzen, erosten eta trukutzen ari direnei; eta kapitalistei, hau da, soberako ondasunak dituen eta merkataritza–interesak lortzeko erabiltzen dituztenei, Probintzia harpidetza horretan sartu gabe”.
- ² “Aspalditik hona, botereei mesedeak egiten dizkieten ermandadearen eskribauak edo kazikeak izateagatik kargu horiek hartu dituzten zenbait gizon buruzagi bezala edo ahaldunen laguntzaile bezala azaltzen dira Biltzar Nagusietan: ia betiko eratuak direnez gero, aparteko balio–izate hartzen duten eta, gisa horretako bi edo hiru artean, Probintziako aginpide osoa biltzen dute”.
- ³ “Legezko eskubide osoaren aurka menperatzen baikaituztenez, ordezkariak dugun Probintziako aginduetatik deslotu eta banatu Arabako foru gabeko lege berria eskatuz, arimak galtzera eramaten gaituzten eta ondasunak galaratzen dizkiguten nobleak bezalako hainbeste erregetxoengandik libre izateko”.
- ⁴ “Herri guztiek, bakoitzak bere lege eta foruen arabera, Estatuaren segurtasuna, independentzia eta mantentze–gastuei laguntza eman behar dizkiete”.
- ⁵ “probintziek gobernua errespetatzen duten bitartean, foruak errespetatzea”
- ⁶ “Ekintza berezkoa eta guztiz libre”
- ⁷ “Batzar Nagusiak, aldarriz nahiz boto nominalaren bidez, hautesle bat izendatzen du esandako karguak proposa ditzala; hau hiritik kanpoko eremuen idazkariarekin batera bakartzen da, hautaketa egin, eta kontua ematen du. Horrela bada proposaturiko prokuradoreak izendatu egiten dira”.
- ⁸ “Aldarriz edo Batzar Nagusia osatzen zuten prokuradore guztien aho–bateko onespenez. Holako onespena ez balitz zapi hautesleren zozketa egiten da Koadrilaka hurrengo era honetan: koadrila osatzen duten ermandadeak besteetatik aparte sartzen dira eta, Batzarraren aurrean, horretarako deituriko haur batek bakoitzetik zedula bat ateratzen du eta Diputatu Nagusiari ematen dio. Honek bildurako guztien aurrean irakurtzen du, eta koadrilatik ongi hartutako ermandadearen prokuradorea bera geratzen da hautesle. Gauza bera egiten da beste guztiekin. Zazpi hautesle hauek zin egiten dute hantxe bertan ezarritako formularen bidez, leku berezi batera bakartzen dira eta elkarren artean konferentziatuz izendapena egiten dute. Zazpi botoetako batek lau biltzen baditu, hautaketa osatzen da. Pertsona batentzat hiru eta beste batentzat hiru ere biltzen badira, emaitzaren berri ematen zio Batzarrari eta honek zozketa egiten du hautagaien artean. Lauko gehiengoa edo hiruko berdinketa ez baldin badago, hautesleek berriro biltzen dira, hurrengo bileran lauko hautaketa edo hiruko berdinketa ez badute aurkezten haien eskubidea galtzen dutela ohartaraziz, eta Batzar Nagusiak, kasu hauetan, hautesleen zozketa berria egiten du. Guzti hori saio batean egiten da 1804ko egite–agiriak geroztik”.
- ⁹ “Foru–agintariei obedientzia, ez da Euskal Herriko mendietan beldurrez ateratako tributua berezko mugimendua baizik, foruak –zeinetatik zuzen–zuzenean datorren–bezain tradizionala eta herentziatzkoa. Han botere publikoak ez du behar indarrera jo obeditu arazteko; han inor eta inoiz ez da altxatzen Nagusien manuen aurka; han ez dira sartu oraindik doktrina arriskutsu eta subertsioak, han bezain benturosoak ez diren beste herrietan hainbeste galera egin zituztenak”.
- ¹⁰ “Azken berrogei urtetan Aldundiak eman dituen xedapen gehienetan sartu nahi izan duen zentralizazioarekiko hidrofobia horrekin bukatzea”
- ¹¹ “Arabako inongo ermandadetako auzotarra ez denak”
- ¹² “Probintziako gobernurako gizon kaltegarri edo arriskutsu”
- ¹³ “Foruen gerizapean jaio ginen eta foruen gerizapean hil nahi genuke”.
- ¹⁴ “Konstituzio politikoak espainiar guztiei ezarri zizkien legeak dei egin dezatenean arma–zerbitzura joateko, eta bakoitzaren ogasunen arabera Estatuaren gastuei laguntzeko, Nazioko beste guztiei bezala, Bizkaia, Gipuzkoa eta Araba probintzietako biztanleei ere dagozkie”.
- ¹⁵ “Aldundi eta Batzar Bereziarekin batera, inolako mugarik gabe, Errege horren Gobernuarekin uztailaren 21eko legearekin lotura zuten gauza guztiez ardura dadila”.



..... Mateo Benigno de Morazari Probintzia Plazan, Arabako Foru
Aldundiaren aurrean, egindako monumentua. Foto Quintas.